

# noaua

Zerrenda zabala eta irekia osatu  
nahi du Hamaikabat alderdiak

Sariaz gozatzeko behatokia

Usurbil KE, igoera fasean



**Umore onean ospatuko dute  
Ziortza Gazte Elkartearen 30. urteurrena**





serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

TXAPELDUN TABERNA



**ALOKAIRUAN edo  
SALGAI**

**TEL 676 97 60 05**

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 € tik**

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste irudituan

# Troia-Aliri itxita, apirila amaierara arte

Zubietako itzulia egin ohi duten hainbat oinezkorentzako oharra; Troiatik Zubietara aldera joateko Aliri zubira arteko bide zatia itxita egongo da hilabete osoan. Aldaketarik ez bada, bai behintzat apirilaren 30era arte. Hala berri eman du Usurbilgo Udalak, ohar bidez. Usurbilgo saneamenduko urak, Zubietako ponpa gunearekin erabat lotu eta Loiolako araztegiara bideratzeko trazadoa osatzen ari dira inguru honetan. "Ugaldeako sarreratik Aliriko-zubiaren arteko trazadoa osatzea falta da", Udaletik ohartarazi dutenez.

### Oinezko pasabidean ari dira lanean

Asteotan Aliriko zubian aritu dira lanean. Lanok amaituta, orain, Troia-Aliri zubi arteko oinezkoen pasabidean hasi dituzte lanak. Eta honenbestez, aipatu bide zatia itxita egongo da, apirilaren 30era arte.



Aliriko zubian lanean aritu dira egunotan. Troia-Aliri itxirik izango da apirilaren 30era arte.

## Laburrean

### 1971n jaiotakoen bazkaria Irui sagardotegian

Aurten berriro elkartuko dira bazkari bat egiteko. "Maiatzaren 9an batuko gara eta Irui sagardotegian izango da bazkaria. Izena emateko email bat bidali helbide honetara, maiatzaren 7a baino lehen: 1971koak@gmail.com

### Iruzur eta lapurreten inguruko hitzaldia

Adinekoak izan ohi dira sarritan, iruzur eta lapurreta askoren jomuga. Gai honi buruzko argibideak emateko hitzaldia antolatu du Gure Pakea Elkarteak. Apirilaren 24an, 17:00etan Artzabalgo ekitaldi aretoan.

### Erroizpe elkarteko urteko batzarra

Igande honetan, apirilak 19, goizeko 11:00etan hasita Txokolden egoitza duen elkartearen bertan. "Elkarteko zuzendaritzak dei egiten die bazkideei etor daitezen, urteko martxaren berri emango baita, diru kontuekin batera".

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkartea@noaqua.com /// www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.com

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

## Memoriaren Parkea

36ko gerrak pasarte ilun asko utzi zituen Nafarroan. Sarraski handientakoa Sartaguda herriak pairatu zuen. Lodosa ondoan, Errioxaren muga da Sartaguda. Berri Txarrak taldearen zaletuek jakingo duzue. Payola (2009) diskoko *Maravillas* kantua herri hartako emakume bati eskainia da. Ez da kasualitatea. "El pueblo de las viudas" deitzen diote Sartagudari. Eta deitura hori du, hain zuzen, 36ko gerraz geroztik. Atera kontuak.

2007an Memoriaren Parkea eraikitzeari ekin zioten, Sartagudak 36ko gerran sufritutakoa ahanzturan gera ez zedin. Parkea zoragarria da. Jose Ramon Anda,

Joxe Ulibarrena eta Nestor Basterretxea eskultoreen lanak topatuko dituzue. Eta Pablo Antoñana, Bernardo Atxaga, Castillo Suarez, Jokin Muñoz edota Jose Maria Jimeno Jurio idazleen poemak, burnizko xaflatan idatziak.

Laster, beste eskultura bat ipiniko dute. Rodrigo Romero madrildarraren ideia nagusitu zen lehiaketan. "Berreraikuntza" du izena lanak, eta gerrako eta gerra ondorengo miseriak pairatu zituzten emakume haiei eskainia da. Urrirako ipini nahi dute. Herriko zaharrenak hiltzen ari dira, eta berandu baino lehen osatu nahi dute parkea, osorik eta amaiturik ikus dezaten. Sartagudara hurbiltzen bazarete inoiz, Julio Sesma aurki-

tuko duzue Memoriaren Parkean. Edo Jose Ramon Martinez. Edo biak batera, gidari lanak egiten. Beharrezkoak diren azalpen denak emateko prest. Adeitsu.

Eskultura eta poemen artean, bada horma handi bat, non 3.500 biktimaren izenak jasoak dauden. 36ko gerran erail zituztenenak. Denak Nafarroakoak. Bitxia da horma honekin gertatu dena. Parkea egiten hasi zirenean, horma ez zen parkeko elementu nagusia. Eskulturen kokapenak eman ziren burukomin gehien. Baina bisitarientzat horma bihurtu da parkearen helduleku nagusia. Eta badu bere arrazoiak. Desagertuen kasuan, hilarriaren funtzioa betetzen du. Orain askok badute lo-

reak nora eraman.

Inauguratu zutenetik hona, erromesaldiak ez du etenik. Asteburutan bereziki, jende asko batzen da.

Aurreko igandean izan ginen gu Sartagudan. Enegarrenez. Albiste onak zituzten. Orain arte, mantenu lanak Sartagudako herriaren eta parkea kudeatzen duen elkartearen bizkar joan da. 12.000 euro urtean, gutxi asko.

Nafarroako Gobernuak xoxik ez eta aitzakia ugari ipini ditu azken urteotan. Hara non iritsi den notizia. Mantenu lanetarako diru partida prest duela Nafarroako Gobernuak. Nahi dutenean leihatilara hurbiltzeko, diru partida jasotzera. Hauteskundeetako haizea hain amorragarria da horrelakoetan.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

### Ika-Mika

## San Estebango Jaiak. Auzotik auzoarentzat?

Auzotik lehen astean ospatu ohi dira San Estebango jaiak, eta jakina, horrek, alde zurretiko antolakuntza eta konpromisoa suposatzen du. Geure gurasoengandik entzundako makina bat istorio etortzen zaizkigu burura, euren gazte garaian zenbat esfortzu eta ahalegin egindakoak ote dira gure aurreko belaunaldiak San Estebango plazan...

Garaia aldatu egin dira, ordea, eta ez guk nahi genukeen bezala. Azken urteetan, antolatzaileen gainbehera nabarmena eman da San Esteban auzoan, beteroanek euren lekuak uzten joan diren heinean, oso gazte gutxi batu baitira jai batzordera. Hortaz, urte askotan zehar jai batzordean lan handia egin duten beste auzotarrei erre-

leboa hartzeko komerietan gabiltza, eta beste urteetan ez bezala, aurtengoan, oraindik jaiak antolatzen hasteke gaude.

Jai batzordeko partaide garenok, inondik inora ez genuke nahi jai hauek galtzea, baina momentu honetan, jai batzordean oso kide gutxi gara, eta ez gara gai ikusten festa guztiak geure kabuz aurrera eramateko. Ondorioz, gogoeta egiteko ordua delakoan gaude, eta auzotar guztiak hausnartu dezatela ea San Estebango jaiak mantentzeko ilusio eta gogorik ba ote dagoen. Aurtengo festak, besteetan baino sinpleagoak izanda ere ez da ezer gertatzen, baina geure helburua jai batzordeak berriz ere martxa hartzea litzateke, eta horretarako ahalik eta auzotar gehien laguntza

behar dugu.

Hori dela eta, deialdi guztiz ireki bat luzatu nahi diegu auzotar guztiei, izan haur, gazte edo helduei, jai hauek mantendu eta auzotik auzoarentzat ongi pasatzeko aukera izan dezagun guztiok. Lehen deialdi honetara agertzen den pertsona orok izango du bere iritzia eta ikuspegia emateko aukera. Biler ireki hau San Estebango plazan egingo da apirilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 19:00tan. Bertaratu ezin duenak, baina, festen antolakuntzan parte hartzeko gogoia duenak, idatz dezala mezu bat xanistebanak@gmail.com helbidera bere ize-na eta telefonoarekin. Eskerrik asko.

**San Estebango Jai Batzordeko kide bat**

### Errenta Aitorpena egiteko garaia da

Aste hasieratik martxan da, 2014ko Errenta Aitorpen kanpaina. Jada, autolikidazio proposamena jasoko duzun edo ez jakin dezakezu. Kontsultak egiteko, sartu [gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta](http://gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta) atarian.

#### Zozketa

Buruntzaldeko udalek errenta aitorpena euskaraz egiteko gonbita luzatu dute. Geroz eta herriar gehiago dira, hala egiten dutenak. laz bezala, Facebook bidez ("Buruntzaldea euskaraz" orrialdean) lehiaketa antolatu dute. Errenta Aitorpenari buruzko zenbait hitzen esanahia asmatu beharko da. Parte hartzeko epea maiatzaren 14an amaituko da. Asmatzaileak sagardotegirako 2 laguntzako otordua irabaziko du.



# “Zerrenda ireki eta plurala” osatu nahi du hauteskundeetarako Usurbilgo Hamaikabatek

**M**aiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetara begira egingo dutena argitu du Hamaikabatek. Udal hauteskundeetarako zerrenda propioa osatuko du Usurbilen. Foru hauteskundeetarako aldiz, EAJ-PNVren aldeko bozka eskatuko dute.

Argitara eman duten oharrean adierazi dutenez, jada maiatzaren 24ari begira dira Hamaikabatekoak, “gogoeta isilean; Hamaikabat, herrigintzarentzat, Usurbilgintzarentzat tresnarik egokienean nola bihurtu asmatu nahirik”. Datozen hauteskundeetara, Usurbilen dagoen eskaintzaren alternatiba gisa aurkeztu asmo dute. “Usurbilen baditugu bi eskaintza: ezker erradikala (EHBildu) eta eskuina (EAJ-PNV). Biek ideologia eta herriz kanpoko gaiak lehenesten dituztenak. Guk, ez batean ez bestean daudenei aukera eman nahi diegu herri-politika egiteko, gure eskarmentua eskainiz”, adierazi dute.



Hamaikabat alderdiak bi zinegotzi ditu Usurbilen. Luismari Ormaetxea (argazkian ezkerretara) eta Josune Urkia. Argazkia artxibokoa da. Duela lau urteko hauteskunde kanpainakoa.

## Zerrenda osatzeko gonbita

Herrigintzan zentratu nahi dute. “Koherentziaz, Hamaikabaten inguruan kokatzen garenok prest gaude herriko gauzetan zentratuko den, herri kudeaketan soilik arituko den eta gardentasunez arituko den zerrenda ireki eta plurala osatzeko, gure esperientzia eta baliabideak eskainiz ho-

rretarako”. Herrikoak diren emakume eta gizonez, eta plurala eta irekia izango den zerrenda osatu nahi du udal hauteskundeetarako, Usurbilgo Hamaikabatek.

Herrigintzan aritu nahi dutenei eurekin harremanetan jartzeko gonbita luzatzen diete, hartu-emanetarako: 622 283 941 edo h1usurbil@h1usurbil.net

## Posta bidez bozkatzea eskatzeko epea zabalik

**M**aiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetan, posta bidez bozkatzeko aukera izango da. Eskaerak egiteko epea zabalik da jada:

- Maiatzaren 14ra arte: posta bidezko bozka eskaera aurkezteko aukera, gertuen duzuen Correosen posta bulegoan.
- Maiatzak 4-17: Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzak bidalitako posta

bidez bozkatzeko dokumentazioa jasotzea.

- Maiatzak 4-20: posta bidezko bozka bidaltzeko epea.

### Hauteskundearen egutegia

- Apirilak 15-20: hautagaitzak aurkezteko epea.
- Apirilak 25-29: hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketa.
- Apirilak 27: hautagaitzak alda-

rrikatzea.

- Maiatzak 8-22: hauteskunde kanpaina.
- Maiatzak 24: bozketaren eguna.
- Maiatzak 27: hauteskundeetako emaitzen bozka zenbaketa ofiziala.
- Ekainak 13: udalak eratzeko.
- Ekainaren bigarren hamabostaldian: Gipuzkoako Batzar Nagusiak eratzeko.
- Uztailaren 13a baino lehenago: Gipuzkoako Ahalduen Nagusia hautatzeko.

### Sagardo Eguna, aurten lehenago

Usurbildarren jai egun maitatuena, maiatzeko azken bigarren igandean ospatu ohi da urtero. 2015eko edizioa ordea, udal eta foru hauteskunde egunarekin egokitu denez, astebeate aurretik hitzordua. Usurbilgo Sagardo Eguna, maiatzaren 17an aurten.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

USURBILGO ATARIA

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# Garapen Agentzia eta hainbat mozio, martxoko azken plenoan aztergai

Azken NOAUA aldikarian iragarri bezala, EAJ-PNVk 'Beterri' eskualdeko garapen agentziari buruzko mozioa aurkeztu zuen. Alderdi jeltzalearen hitzetan, "Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak jakitera eman duten proposamenak legezko baliorik ez du, aurkeztutako erakundea oraindik ez baita eratu, eta beraz, legezko baliorik ez duen proposamen hutsa baino ez da".

Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak jakitera emandako proposamenak eta edukiek ez dutela dagozkien udalerrien osoko bilkuren babesik. Eta agentziaren gaia aztertu ere egin ez diren udalak ere barruan sarturik daudela. Hala dio EAJk. Honen aurrean, puntu hauek onartzea eskatu zuen alderdi jeltzaleak, mozio bitartez:

Usurbilgo Udala usurbildar guztion erakundea dela, eta osoko bilkura, udalaren ordezkari-tza-organogorena. Berretsi dezala Eskualdeko Garapen Agentzia 'Beterri' ez dela eratu eta beraz, jarduerarik ez daukala.

Eskualdeko Garapen Agentzia eratu eta sei herrialdetako udalbatzaren babesa lortu arte ezingo dela 'Beterri' izena erabili.

Eskualdeko Garapen Agentziaren baitan, erabakiak hartzerakoan eskualdea osatzen duten kide guztien iritzia kontuan hartuko dela.

Beste alderdi politikoekin negoziazioak hautsi izana agentzia eratzeke premiazko beharra zegoela argudiatuz, aitzakia hutsa zela akordioetara ez iristearren.

Josune Urkola EAJ alderdiko zi-



EAJren mozioak oposizio osoaren babesa jaso arren, ez zen onartua izan.

## GARAPEN AGENTZIA

**Eskualdeko sei herrien babesa lortu arte 'Beterri' izena ezin dela erabili eskatzen du EAJ-PNVk**

negotziak irakurri zuen mozioa.

### Oposizio osoa, EAJrekin bat

Alaitz Aizpuruak, segidan, udal gobernuaren bozeramale lanak egin zituen. Esan zuenez, mozioan esaten diren gauza batzuekin ados daude. Baina egitasmoa aspalditik datorrela aipatu du. Abiarazi dena tresna bat dela, kudeaketa erraztuko duena.

2012an hitzarmen protokolo bat sinatu zutela udal guztiek. "Horren jarraipena egin dugu", adierazi zuen Aizpuruak. Izenarena detaile bat dela eta Astigarragan eta Andoainean ere onartu zela 'Beterri' izendape-na.

"Entitate juridikoa ez dago sortuta, baina bien bitartean egitasmoak

ezin ditugu oztopatu", adierazi zuen Bilduko zinegotziak. Hortaz, mozioaren aurka bozkatuko zutela aurreratu zuen Alaitz Aizpuruak.

Aldiz, oposizio osoaren babesa izan zuen EAJk, Hamaikabat eta PSEren aldeko bozkak ere jaso zituelako. Baina aurka agertu ziren Bildu eta Aralarreko zinegotziak, beraz, ez zen mozioa onartua izan.

### Bi mozio, EH Bildu eta EAJren eskutik

Garapen Agentziaren gaian, oso urrun daude EH Bildu eta EAJ. Baina hori ez zen beste mozio batzuetan ados agertzeko arrazoi izan. Are gehiago, mozio bi aurkeztu zituzten elkarrekin: Mendebaldeko Saharako auziari bidezko eta behin betiko konponbidea bilatzeko eskaerarekin bat egin zuten bi alderdiek. Eta ahobatez onartu zen mozioa.

Torturaren aurkako eta giza eskubide guztien aldeko mozioa ere batera aurkeztu zuten. Aurkako bozka eman zuen PSEk. Gainontze-koek ahobatez onartu zuten.

## Hilerrri berriko hilobien gaineko eskubideak

Elena Martiarturi indemnitzazio bezala emango zaizkion lau nitxo kokatuko diren panteoi berdinean, beste bi nitxo esleitu-ko zaizkio. Ahobatez onartu zen puntu hau martxoko ohiko udalbatza plenoan.

Hilerrri berrian eskaintako hilobien gaineko eskubideak azalean jasotako eran esleitzea erabaki zen. Onuradunak Jose Maria, Fernando eta Arantza Arriola Bergaretxe anai-arrebak izango dira. Ahobatez onartu zen hau ere.

## Arau Subsidiarioen inguruko erabakiak

IGEPAK enpresak bere lantegia zabaldu nahi zuen. Eta honekin sortu zen Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) eremuan al-daketa bat egiteko proposame-na. Ere mu horren antolamendu xehatuaren aldaketa hasieraz onartu zen martxoko plenoan. Bildu, Aralar eta PSE-EEren aldeko bozkekin atera zen aurre-ra. Abstentzioaren alde bozkatu zuten Hamaikabat-ek eta EAJ alderdiak.

### Beste artikuluko batzuen aldaketa ere onartu zen

Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko araudi-ko 37., 53., eta 54. artikuluen al-daketa puntuala ere onartu zen. Bildu, Aralar eta EAJren aldeko bozkekin.

Abstentziora jo zuten Hamai-kabatek eta PSEk.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**txirriStra**  
**TABERNA**

-Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Beterri Garapen Integralerako Agentzia, martxan

**B**eterri Garapen Integralerako Agentziak badu bere txokoa: Hernaniko Florida auzoko Gabriel Zelaia eraikinean. Martxoaren 25ean inauguratu zuten, eskualdeko udal (Usurbilgoa tartean), eragile eta enpresa munduko ordezkariak baten eskutik.

Eskualdeko langabeziari aurre egin nahi dio Beterri Garapen Integralerako Agentziak, “langabeziaren egoera aldatzeko estrategiak eta azpiegiturak ezarri”. Egoitza berria du jada, baina martxoaren 25ekoa, bi solairuko eraikin huts bat baten inaugurazioa baino zerbait gehiago izatea nahi zuten antolatzaileek. Edukiz betetako eraikina izatea hain zuzen. Aurreratu zuten, erakunde, eragile, enpresa eta herritarrek elkarlanerako hiru gune izango dituzte egoitza berrian. Bat, egin, sortu, landu eta ekoizteko, bestea ikertu, ikasi eta elkar erakusteko eta azkena, pentsatu, irudikatu, amesteko.

Eta behar duen ororentzat, Garapen Agentzia berriko proiektuak koordinatzeko espresuki osatu duten lan talde bat izango du eskuragarri, zerbitzuok eskaintzeko prest: enplegu, ekintzaile eta enpresa zerbitzuak; edota merkataritzaren, turismoaren eta sektore sortu berrien edota estrategikoen sustapena.

**Innoforo-ren bidez enplegua eta jarduera ekonomikoen sorkuntza bultzatu nahi dute** Garapen Agentzia martxan jarrita, gabezia handi bati erantzun diotela aipatu zuten Hernani eta Usurbilgo alkateek inaugurazio ekitaldian. Agentziarik gabeko Gi-

eta proiektu gehiago sortu ahala, ez dute baztertzen Beterriko beste udalerrietan egoitza txikiagoak irekitzea.

## Informazio gehiago:

beterri.eus  
beterri@beterri.eus  
Florida auzoa, 28  
Hernani 20120  
943 25 63 47

Baina aurrerago, zerbitzu



Martxoaren 25ean inauguratu zuten eraikina.

## EGOITZA, HERNANIN

**Langabeziari aurre egin nahi dio Beterri Garapen Integralerako Agentziak, “langabeziaren egoera aldatzeko estrategiak eta azpiegiturak ezarri”**

puzkoako eskualde bakarra baitzen geurea. Eta lau urteotan norabide horretan urratsak ematen aritu direla. Etorrizuz, “aukera berrien eskualdea” izatea nahi dute Beterri. Horretarako, Garapen Agentzia bera martxan jarri dute, baina baita zenbait proiektu abiatu ere. “Innoforo” eta “Kooperatzen” esaterako. “Innoforo”ren bidez, enplegu eta jarduera ekonomikoen sorkuntza bultzatu nahi dute. Eskualdeko 250 enpresa eta eragile, eskualdeak lanpostuak sortzeko dituen gaitasunak aztertzen dabilta. Energia, kulturagintza, lehen sektorea

(sagardogintza...), turismoa jotzen dituzte, lanpostu berriak sustatzeko eremu giltzarritzat.

## Kooperatzen, enpresa berriak sortzeko gidaritza

“Kooperatzen” egitasmoak bestalde, “enpresa berriak sortzeko gidaritza eskaintzen du”. 20 beka banatu dituzte jada, 14 enpresa sortzeko. Proiektu honetan parte hartzen ari diren bi lagunek hartu zuten hitza, inaugurazio ekitaldian. Garatu nahi zuten ideia berri bat bazutela buruan, baina nola gauzatu ez zekitela omen ziren. Kooperatzen, ideia hori gauzatzen laguntzeko oso baliagarria suertatu zaiela aipatu zuten, eskerrak adieraziz. Garapen Agentziako sustatzaileek ere eskerrak helarazi nahi izan zizkieten, legegintzaldi honetan zehar, agentzia bera martxan jartzeko prozesuan lagundu duten guztiei.

## Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean

**D**atozen hilabete hauetan, forma juridikoa emango diote jada martxan duten Garapen Integralerako Agentziari. Momentuz, Beterri Garapen Integrale-rako Agentziaren erreferentzia gune nagusia Hernaniko Gabriel Zelaia eraikina izango da, argazkikoa.





## Joan Mari Torrealdai: “Deskribatu dudan torturari lotzen diot nire minbizia”

**M**inbizia dut, non eta hezur-muinean. Barrurago ezin. Zuen aurrean egin nahi dut publiko. Bistan da zergatik: deskribatu dudan torturari lotzen diot gaitza, nire minbizia. Jasandako torturen kontaketa latza egin zuen larunbatean, torturari buruz Baionan egin diren jardunaldien baitan, Joan Mari Torrealdai herritarrek. Lehen pertsona eginiko azalpenean, minbizia zuela aitortu zuen. 2003an Euskaldunon Egunkaria itxi eta segidan jasandako torturari egozten dio Torrealdai duen gaixotasuna.

### Torturaren aurkako mozioa onartu zen Udaletxean

“Otsailaren 13an 34 urte bete ziren Joxe Arregi hil zenetik, Polizia Nazionalaren eskutan 9 egun eman ondoren. Harrez geroztik tortura urtetik urtera salatu dugu, kalean eta erakundeetan. Zentzu horretan, Euskal Herrian milaka eta milaka herritarrek salatu dute tratatu txarrak jasan izana Estatuko polizia indarren eskutik.

Gainera, aurten jakin dugu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Es-



Joan Mari Torrealdairen adierazpenak oihartzun handia izan du.

painiako Erresumaren aurkako kondena-epai berri bat eman duela euskal herritar batek salatutako torturak ez ikertzeagatik. Epai honekin, Giza Eskubideen Auzitegiak dagoeneko bost kondena-epai eman ditu Espainiako Estatuaren aurka, euskal herritarrek aurkeztutako tortura-salaketak ez ikertzeagatik.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herrian oso testuinguru garrantzitsu batean gaudela aintzat hartuta, non oraina eta etorkizuna eraiki nahi dugun giza eskubideen errespetuan oinarrituta, Usurbilgo Udalak erabaki du, mozio honen bitartez:

1. Komisarietan tratatu txarrak

ahalbidetzen dituzten egun indarrean dagoen legedia behingoz eta behin berritu indargabetzeko eskatzea, Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utziaz.

2. Funtsezkoa den eskubide honen urraketa paratu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta erreparatzea.

3. Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizial guztiak berrikusi eta bertan behera utzi ditzala.

4. Akordio honen berri ematea”.

Mozio hau martxoaren 31ko ple-noan onartu zen EH Bildu, Hamaikabat eta EAJ-PNVren babesarekin.

### Herri sahararraren aldeko mozioa

EH Bilduk eta EAJ-PNVk elkarrekin aurkeztu zuten mozio honen bitartez, Espainiako Gobernuari premiaz eskatzen zaio:

-1975 urteaz geroztik bukatu gabe dagoen deskolonizazio prozesuari amaiera emateko bere erantzukizuna betetzea, herri sahararren borondatearen adierazpen libre eta benetakoa ziurtatuko duen erreferenduma ospatuz.

-Deskolonizazio eta Lurralde ez Autonomoen kontuetan Nazio Batuek finkatutako doktrina babestea.

-Bakea eta giza eskubideen babeserako, MINURSOri (Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioa) lurraldean dagoen Nazio Batuen presentzia bakarrari, kompetentziak esleitu diezazkieten arduratzea, saharar populazioaren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak babestu eta sustatu ditzan.

Mozioa ahobatez onartua izan zen martxoko ohiko ple-noan.

## EH Bilduk ez du egoki ikusten udal lege egitasmoa

**E**usko Jaurilaritza bultzatzen dabilen Udal Lege egitasmoarekin kezkatuta dago EH Bildu. Ez dago ados legeak proposatzen duen finantziazio ereduarekin, ezta legearen hizkuntza ereduarekin, eta bere ustez ez dira herritarren partehartzea ezta toki erakundeak aintzat hartzen.

Gai hau Legebiltzarrean dela argudiatu zuen EAJk eta mozioa, beraz, Eusko Legebiltzarrera eta Eusko Jaurilaritzara bideratuko da. PSEk mozioa

puntuz puntu bozkatzea proposatu zuen eta hala onartua zuen Mertzxe Aizpuruak.

Lehen puntuan, lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatu zuen EH Bilduk eta honen aurka bozkatu zuen PSEk. Abstentziora jo zuten Hamaikabatek eta EAJk.

Bigarren puntuan, Jaurilaritzak udalen aldetik egiten diren ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko prozedura aurkeztu dezan

eskatzearen alde agertu ziren PSE eta EH Bildu. Abstentziora geratu ziren Hamaikabat eta EAJ.

Hirugarren puntuan, mozioaren zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu, irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko bitartekoak jartzeko eskatzea Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari. Abstentziora bat egin zuten Hamaikabatek, PSEk eta EAJk.

Laugarren puntuan, udal zein

tokiko entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko deia egitearen alde bat egin zuten PSEk eta EH Bilduk.

Abstentziora geratu ziren Hamaikabat eta EAJ.

Azkenik, mozioa Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratuko zaio, horretan ere bat zetozen alderdi sozialista eta EH Bildu. Abstentziora jo zuten Hamaikabatek eta EAJk.

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**ARRANDEGIA PELLO**

PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**ARTZABAL**  
Baserría - Jatetxea

943 36 91 39  
artzabaljatetxea.com



# BERRIZ

ENPRESA TOLOSAN

*hartu erreleboa*

*Pertsona ekintzailea zara eta Tolosan martxan dagoen negozio bat hartu nahi duzu?*

Tolosako merkataritza eta ostalaritzaren jarraipena bermatzeko, Tolosako Udalak laguntza ekonomikoak emango ditu: 6 hilabete arteko lan-kontratazioa ordaintzeko, bideragarritasun plana gauzatzea, lokala alokatu/erosteko eta 10.000€ arte moldaketetarako.

Informazio gehiago eta parte hartzeko:

merkataritza@tolosa.eus | 943697454 | www.berrizenpresa.com



# HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO  
2013, 2014 eta 2015 urteetan jaiotako hurrei zuzendua

- **MATRIKULA EPEA:** apirilaren 15etik 30era Kalezarren
- **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -16.30\*
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **HITZORDUA:**  
943 37 40 61 telefonoan 9.00etatik 12.00etara
- **ATE IREKIEN EGUNA:** apirilak 21, 17:00 euskaraz  
eta 18:00 erderaz
- **EPEZ KANPO IZENA EMAN NAHI DUTEN FAMILIEI,**  
**EZINGO ZAIE PLAZA ETA ORDUTEGIA BERMATU**

 943 374 061

# Behatoki berria, lehengoratu duten Aginagako Sariaz gozatzeko

U surbildik Oriora bidean, N-634 errepidetik barrena Sariaaundi etxe pareta pasa eta metro gutxira, errio aldera ematen duen saihesbide txiki bat aurkituko duzue. Autoz sartu zaitezke bertara, aparkatzeko gunea duzue. Eta hortik bidexka batetik oinez, Aginagako Sarian dagoen behatoki berri eta eder batera helduko zarete. Behatokitik, ingurua lehengoratu nola geratu den ikusi eta duen aberastasunaz goza dezakezue. Martxoaren 26an inauguratu zuten gunea, Usurbilgo Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak.

Sariako lehengoratze lanak duela urtebete inguru amaitu zituzten. Guztira ia milioi bat euroko inbertsioa bideratu da, eremua berreskuratzeko lanetara. Oriako itsasadarra berreskuratzeko lehen urratsa omen da hau, baina ez azkena. Jose Maria Rivadeneyra ingurumen zinegotziak aipatzen zuenez, "erakundeok erakutsi dugu elkarlanean halako proiektuak aurrera atera daitezkeela. Ikusi Urdaibaiko adibi-dea. Bertan egindako inbertsioak bultzada ekonomiko eta ekologikoa suposatu du ingurune hartarako. Hemen etorkizun bera izan dezakegu. Ingurumenean egindako inbertsioak errentagarriak eta seguruak dira. Aurrera egin dezagun, hau lehenengo urratsa da".

## "Etorkizunerako inbertsioa"

Sarian egin den berreskuratze lana, etorkizunerako inbertsioa dela adierazi zuen Mertxe Aizpurua alkateak. Eskerrak helarazi zizkien elkarlanean aritu diren Udalarri, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, proiektua landu zuen Aranzadiri eta Itsas Enara Ornitologia Elkarteari, emandako aholkuengatik.



Martxoaren 26an inauguratu zen, eta udal zein Foru Aldundiko ordezkariak hartu zuten parte.

## Ingurunea bisitatzeko gonbita

Jaurlaritzak 2007. urtean 600.000 euroko diru-laguntza eman zion Usurbilgo Udalarri, Sariako lurak erosteko. Udalak lurak erosi eta gerora Foru Aldunditik jasotako laguntzarekin bideratu dira lehengoratze lanak. Egindako inbertsioak merezi izan duela zioen inaugurazio ekitaldian, Iñaki Errazkin Foru Aldundiko ingurumen diputatuak. Oriaren itsasadarra natur baliabideetan duen aberastasuna nabarmendu eta halako proiektuak sustatzen jarraitzea, Aldundiaren lehentasunen artean dagoela aipatu zuen. "Natur aberastasuna duten espazioak berreskuratzeko apustu horrekin jarraitu nahi dugu", zioen. Herritarrak zoriontzarekin batera, Sariako behatokira gerturatzeko gonbita luzatu zuen.

Errio inguruaz, ur gezadun putzuaz, pixkanaka hazten ari den landarediaz eta bertaratzen hasiak diren hegaztiak behatzeko aukera izango da aurrerantzean. Ori itasadarra berreskuratzeko lehen mugarrria jarri da.

## Zubieta, 4 barrutietan banaturiko Donostia mendebaldean

Donostiako Udaleko udalbatzan duten gehiengoaz baliatuta, PSE-EE, PP eta EAJ-PN-Vren aldeko bozkekin, hiriburua lau barrutietan zatitzea onartu zuten martxoaren 26ko osoko bilkuran. Zubietari ere eragingo dio erabaki honek. Honela egituraturako da etorkizuneko Donostia:

- Iparraldeko barrutia: Alde Zaharra, Erdigunea, Amara, Loiola-Txomin eta Martutene.
- Ekialdeko barrutia: Altza, Intxaurrondo, Ulieta eta Bidebieta.
- Hegoaldeko barrutia: Gros eta Egia.
- Mendebaldeko barrutia: Antiguoa, Aiete, Añorga, Ibaeta eta Zubieta.

Donostiako Udala auzoetara gerturatu nahi dutela diote PSE-EE, PP eta EAJ-PNV, aldaketa honen hiru eragileek. Auzo elkar-teak aldiz, aurka agertu eta bilgune bat osatu dute.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**WHEEL MADAMA**

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa · Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak · Hizkuntzak

**629944690**  
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**

Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK

**645417665**  
XABIER  
**Usurbil**

**Josue Igeltseritza**

**606 37 21 05**  
Atallu pol.28 USURBIL



# Gure artean beharko luke

2013ko urrian, Parot deituriko doktrina gori-gori zegoela, oharkabeen pasa zen beste salbuespeneko neurri bat: *zigorren zenbaketa bikoitza* deritzon irizpidearen ukatzea. “2014tik hainbat euskal presoek ukatu zaio irizpide hori bere zigorraren bukaera edo likidazioa egiteko garaian. Horietako bat, gure herrikide Xabier Aranburu Xomorrori”, Usurbilen Nahi Ditugu taldekoek aditzera eman dutenez. Kanean egon beharko lukeela, baina espetxean preso daukela oraindik. “Egoera bidegabe hau jakinarazi eta ozen salatu nahi dugu”. Apirilaren 24ean ostirala, elkarretaratzea deitu dute. 20:00etan, Mikel Laboa plazan. “Xomorro askatzea eta etxeratzea aldarrikatzeko”.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak 2008an hartutako erabaki baten ondorioz, sumario bat baino gehiago zuten presoek, epaketak bukatu bitartean behin behineko presoaldiko denbora –“prebentibo egoera” deitzen zaiona– erredentziotarako kontatzea agindu zuen. Ikasketak edo aktibitateak egiteagatik adibidez, kondenatik kentzen zaizkien egunak dira erredentzioak, eta legez hala



Xabier Aranburu Xomorro aginagarra, Herrera de la Mancha dago preso.

agintzen bada ere, euskal presoek era oso murriztuan aplikatzen zaie. 2010ean Kode Penalean egindako erreforman, ordea, artikulua hori aldatu egin zen eta, hala, “zenbaketa bikoitzeko” aukera hori ere kendu egin zen.

Xomorroren kasuan eragin zuzena da bi urte gehiago egin behar dituelako preso. “Gogoratu

behar da lehendik ere kanpoan izan behar zuela”, Usurbilen Nahi Dituguko kideek azpimarratu nahi duten moduan.

Izan ere, 2006az geroztik baldintzapeko askatasunean izateko eskubidea du, “teorian bederen, bistakoa baita beste askori bezala ez diotela aplikatu. Euskal presoekiko Estatu Espainolak daraman espetxe politika

mendekatzailearen beste adibidea da honako hau. Ahalik eta denbora gehien giltzapean mantentzeko helburua ez balu, herri demokratikoetako zuzenbidearen oinarrian dauden irizpideak ez lituzke baztertu behar eta Xomorrok gure artean izan beharko luke une hauetan”.

Usurbilen Nahi Ditugu-ko kideek diotenez, “une hauetan bere senideen ondoan, bere etxean, bere Agiña maitean, gure kaleetan, hementxe bertan plazan edo horko izkinako tabernan, aske beharko luke”.

## Elkarretaratzea

Baina 2017ko martxora arte ez dirudi hori posible izango denik. “Egoera bidegabe hau jakinarazi eta ozen salatu nahi dugu. Hileko azken ostiraleko kontzentrazioa baliatuko dugu eta herritarrak apirilaren 24ean, 20:00etan, Mikel Laboa plazara gerturatzea deitzen dugu, Xomorro askatzea eta etxeratzea aldarrikatzeko”.

## Barrikotea Aitzagan

Ondoren, herriko presoek euskal prentsa igortzeko harpidetza-gastuei aurre egiteko barrikotea antolatu dute Aitzaga elkartearen. Txartelak bertan salgai izango dira 20 eurotan (14 euro ikasle eta langabeentzat).

## Baldintzapeko askatasunean izateko eskubidean dago 2009 urtetik

“Esetxe barneko sakabanaketa estuaren eremuan gauzate”. Hala adierazi zigun Xomorrok berak, iazko ekainean eskaini zigun elkarrizketan. Solasaldiaren pasarte hauek ekarri nahi izan ditugu gogora.

**Zer nolako baldintzatan bizi zara?**

**Xomorro.** Lehen graduaren fasean sailkatuta naukaten, goizeko lau orduak dauzkate patiorako eta egunak dituen gainontzeko orduak ziegan igarotzen ditut. Bestalde, hilean behin ditudan, bis familiarak, astean behin berrogei minutuz ditudan lagun bishitak, astean idatzi ahal

ditudan lau eskutitzak edota familiari bakarrik astero egin ahal dizkiodan zortzi telefono deiak (bakoitza bost minutuko) interbenituta dauzkat. Esetxe barneko sakabanaketa estuaren eremuan gauzate, non zeru puska bat, txoriak eta kartzelariak baino ezin ditzaizkegun ikusi.

## Abuztuaren 24 urte beteko ditu espetxean

- 1962ko abenduaren 17an jaio zen Aginagan.
- 1991ko abuztuaren 17an atxilotu zuten.
- 2006-8-17tik baldintzapeko askatasunean izateko eskubidean da.
- 2014ko maiatza: “zigorren zenbaketa bikoitza” irizpidea ukatu zitzaion.
- Irteera data aurreikusia: 2017ko martxoaren 11.

# Jexux Artzeren omenez

Udaberriko hitzordu e-sanguratsuenetakoa da. Jexux Artze zenaren omenezko kultur zikloaz ari gara hizketan. Aurtengoa, "Nola belztu behar zuria" ikuskizunarekin abiatuko da, apirilaren 24an. Bideoz grabatua izango da emanaldi hau, eta Elkar argitaletxeak DVD euskarrian plazaratuko du udazkenean.

Bide Ertzean taldea eta Metrokoadroka Sormen Laborategiko Asier Sarasola zein Oier Guillan dira "Nola belztu behar zuria" ikuskizunaren egileak. Baina protagonista nagusia Joxan Artzeren poesia da. Bere liburu berriak baitira saioaren oinarri.

## Joxan Artzeren poesia

Joxanen poemak dira errezitatzeko eta kantatzeko dituztenak.



"Nola belztu behar zuria" saioarekin abiatuko da zikloa. Apirilaren 24an ostirala, Sutegin. Sarrerak dagoeneko salgai dira Lizardin. Argazkia: Ibai Arrieta.

Ordubete irauten duen erreztaldia musikatu hau iaz eskaini zuten lehen aldiz. Sutegin, eta Jexux Artze KEk antolatuta. Geroztik, literatur jardunaldi ezberdinetan izan da "Nola belztu behar zuria" ikuskizuna.

## Grabatu egingo da saioa

Iaz eman bazuten, zergatik programatu berriro? Bideoz erregistratu nahi delako. Apirilaren 24ko saioa DVDn plazaratzeko

asmoa du Elkarrek, udazken partean ziurrenik. Ekimena argitaletxearena eta Jexux Artze KErena izan da, eta finantziaioari aurre egiteko, Usurbilgo Udalaren dirulaguntza jasoko dute.

## Apirilaren 24an, Sutegin

Saioa 22:00etan hasiko da. Sarrerak Lizardin daude salgai 10 eurotan, eta Elkarrek Hernanin eta Donostian (Fermin Calbeton) dituen dendetan.

## Aurtengo eskaintza

### 'Nola belztu behar zuria' ikuskizuna

- Apirilak 24 ostirala, gaueko 22:00etan Sutegin. DVDn grabatua izango da.
- Bide Ertzean eta Metrokoadroka Sormen Laborategia.
- Sarrerak: Lizardin 10 euro aldez aurretik eta egun berean leihatilan.

### 'Lasa eta Zabala' filma

- Maiatzak 8 ostirala, gaueko 22:00etan Sutegin.
- Sarrerak: 5 euro Lizardin aldez aurretik eta egun berean leihatilan.

### 'Erdibana' antzezlan

- Maiatzak 9 larunbata, gaueko 22:00etan Sutegin.
- Antzezleak: Jose Ramon Sorroiz, Iker Galartza.
- Sarrerak: Lizardin 8 euro aldez aurretik, 10 euro egun berean (leihatilan).

## BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera ditugu zozketatzeko. Email bat idatzi erredakzioa@noaua.eus helbidera eta apirilaren 24an ostirala [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus) orrian bazkide sarituaren izena.



# #Gattunk bideoklipa, bidean

**L**otzen GaTTunk izena du, urriaren 4ko jaialdiari doinua jarriko dion abestiak. Martxoaren 16an aurkeztu zuten hedabideen aurrean. Apirilaren 22an 19:00etan Sutegin jendaurrean aurkeztuko dute. Eta ez abestia bakarrik, baita asteotan herrian grabatu den bideoklipa ere. "Kilometroak 2015 Gattunk ekimenaren abesti eta bideoklipak aurkeztuko dira ikuskizun batean. Bertan, emaitzez gozatzeaz gain, hau da, abestia zuzenean entzun eta bideoklipa ikusteaz gain, prozesuaren nondik norakoak, letrak eta bitxikeriak ere azalduko dira".

## Alex Telloren antzezlari berri bat, Kilometroak15-en alde

Aurreko larunbatean eskaini zen "Zu Gabe" antzezlariaren ostean, Alex Telloren bigarren



■ Apirilaren 22an aurkeztuko da bideoklipa. Eta apirilaren 29an, "Ekoetikopatetikobikoa" antzezlana. Anabel Arraiza eta Jabier Rodil aktoreak arituko dira Sutegin.

lan bat aurrestreinatuko da, #Kilometroak15-en aldeko ekimenen baitan. Apirilaren 29an, 20:00etan Artzabalena, "Ekoetikopatetikobikoa" (poltsiko antzerkia), Anabel Arraiza eta Jabier Rodil aktoreekin. Sarre-  
rak egunean bertan 5 eurotan eskuragarri. Sarre-  
raren truke, antzezlana ikusi eta pintxo bat

dastatzeko aukera.

## Jai parekideen aldeko formakuntza saioa

Jai parekideen aldeko formakuntza asteazkenean hasi zen. Miren Guillo pedagogoak zuzendu zuen Potxoeneko saioa. Maiatzaren 6rako deitu dute bigarren saioa.

## Sagardoaren Lurraldea ezagutzeko aukera

Sagardoaren lur eremua oinez ezagutzeko aukera aparta, apirilaren 26an. Astigarraga eta Usurbil lotuko dituen ibilaldi batekin hasiko da eguna:

■ 08:00 Ibilaldia Astigarragatik, Hernanitik barrena, Usurbila. Ibilaldia Astigarragako Sagardoetxetik abiatuko da.

■ 11:00-14:00 Erakusketa Potxoenean: "Sagardogintza gure baserrietan".

■ Ondoren, bazkaria Aialde-Berri sagardotegian. Prezioa: 22 euro (sagardotegi-ko menua).

■ Izen ematea: 943 550 575 edo [info@sagardoarenlurraldea.com](mailto:info@sagardoarenlurraldea.com)

■ Antolatzaileak: Sagardoaren Lurraldea, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalak.

■ Laguntzaileak: Mendiriz Mendi eta Andatza M.K.T.

**Auto Guria s.l.**

**BERRIZ ZUEKIN!**

**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Poligonoa USURBIL

# Ziortza 30 urtez, aisialdian hezten

1- Nolatan erabaki zenuen Ziortzara gerturatzea?

2- Begirale belaunaldi berria zarete. Nola bizi izan duzue erreleboa?

3- Huts egin behar ez dugun urtemugako ospakizuna aukeratu.



**Beñat Arruti eta Ander Izeta**

1- Beñat: Ziortzaren etenaldiaren osteko lehen belaunaldikoak gara. 18 gaztetxo hasi ginen. Urteetan gu izan ginen zaharrenak DBH-n. Kanpaldira joaten hasi eta Ziortzara lotzen segi genuen. Sukalde-laguntzaile bezala hasi ginen Batxilergoan eta hasieratik nahi genuen moduan, 18 urterekin begirale lanetan.

Ander: gurasoak Ziortzara ibilitakoak ziren. Txikitik, araba eta biok kanpaldira eraman izan gintuzten. Ziortzari berriz heltzea erabaki zitzaionean, parte hartzeko deitu ziguten. Etxetik ere animatu ziguten. Oso gustura gabiltza.

2- Ander: orain errelebo prozesua naturalagoa da, guri egokitu zitzaiguna baino. Lehen ez zen sartzen begiralerik, ez zegoelako. Orain lanketa egiten da 17 urteko gazteekin.

3- Ander: Omenaldira eta argazki proiektoria etorri, garai zaharrak



**Ziortza Gazte Elkartea belaunaldi ezberdinen aterpe izan da urteotan.**

oroitu eta Ziortzaren historiaren berri izateko.

Beñat: Bazkarira animatzen dut jendea. Tartean, gurasoak. Ziortzaren zati handi bat dira. Euren laguntza eta babesa ezinbestekoak izan dira urteotan, kanpaldian adibidez.



**Haira Rivero eta Miren Izeta**

1- Haira: 20tik gora lagun etortzen hasi ginen. Kanpamenduan sukalde-

laguntzaile bezala aritu nintzen duela bi urte eta aurten begirale lanetan hasi gara. Neure buruaz zerbait ikasi dut; ez nintzen haur edo gazteekin lanean ikusten. Baina gustura ari-tzen naizela jabetu naiz. Miren: LH6an kanpamendura joaten hasi ginen. Eta urteko saioretara. Oso ondo pasatzen genuen, konfiantza handia hartu genuen gure artean eta begiraleekin.

2- Haira: nahiko erraza izan zen erreleboa. Begirale ikastaroan murgildu gara eta oso funtzionala izan da dena. Iaz begirale gutxi ginen, baina aurten sei sartuta, indartzen ari da Ziortza.

3- Miren: ez da bazkari soil bat

izango. Elkarrekin hitz egiteko aukera egongo da, musika... Herri bazkari modukoa izango da.



**Zuriñe Lasarte**

1- DBH 1ean nengoela gerturatu nintzen Ziortzara. Familiatik Ziortzaren eta kanpaldiaren berri banuen eta probatzeko gogoan nuen. Ia gela osoa etortzen hasi ginen. Ordutik urtero joan izan naiz kanpaldira. Gaztetxo bezala lehenik, sukalde-laguntzaile bezala gero eta begirale moduan egun.

2- Batxilergoa bukatu genuenean, begirale taldean sartzeko aukera eskaini ziguten. 4 lagunek baietz esan genuen eta hemen gaude. Hortik begirale ikastaroa egitera animatu ginen. Oso gustura gaude. 3- Gazteak gonbidatu apirilaren 26ko egunera, denon artean jolas ezberdinak egingo ditugu. Ondo pasako dute. Animatu!

## Larunbatean hasiko dira urtemugako ospakizunak

### Apirilak 18, larunbata

■ 12:00 Argazki proiektoria eta omenaldia Sutegin. "Izan garelako gara. Ezerezetik proiektu honi heletzea bururatu eta gerora, garai zailetan berriz ere indarra hartzen lan egin zutenei merezitako eskertza eta omenaldia. Eta garai zaharrak gogoratzeko argazki proiektoria".

■ Ondoren, erakusketaren irekiera, Sutegiko aretoan. "Ziortzaren historiari loturiko erakusketa. Argazki bilduma eta urteotan antolatutako ditugun ekimenak oroitaraziko dizkiguten hainbat objektu" ikusgai.

■ 13:00 Trikipoteoa.

■ 14:30 Bazkaria Udarregi Ikastolako jangelan. "Belaunaldi ezberdinen arteko bilkura izan nahi du. 30 urteetan Ziortzatik igaro garen guztiok biltzea nahi genuke. Elkar ezagutu eta esperientziak partekatze aukera polita". Txartelak apirilaren 15era arte salgai: Bordatxon, Aitzagan eta Apaiz-etxean. Menuak:

-Helduen menua: itsaski-paella, biribilkia saltsan eta pantxineta. Prezioa: 20 euro.

-Gazteen menua: makarroiak, oilaskoa eta txokolata tarta. Prezioa: 12 euro.

### Apirilak 19, igandea

■ 12:00 Parrokiako talde guztien eukaristia.

### Apirilak 18-26

■ 17:00-19:00 Erakusketa, Sutegiko aretoan. (apirilaren 25ean, III. Dantza Egunean itxita).

### Apirilak 26, igandea

■ 10:00 LH 5etik DBH4ra arteko gaztetxo ororentzako jolasak frontoian.

■ 14:00 Bazkaria (norberak berea ekarri, eta edaria eta postrea Ziortzaren kontura).

■ 15:30 Jolasen jarraipena.

■ 18:00 Dantzaldia Askatasuna plazan. Antolatzailea: Ziortza Gazte Elkartea.

### Ziortzaren materiala salgai

30. urteurreneko kamiseta, jertse, motxilak eta buff-ak jarri dituzte salgai. Eskerak egiteko idatzi ziortzage@gmail.com helbidera edo bisitatu ziortzage.wordpress.com.

Bestela, Sutegiko erakusketa lekuan eskuragarri, apirilaren 18tik 26ra.



## Foru Aldundiko aurrekontuen bi milioi euro herritarren esku, eskualdean inbertitzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontuetako 20 milioi euro bideratuko ditu datozen lau urteotan, 10 eskualdeetako herritarrek nahi duten egitasmoetara. "Foru Aldundiak bere aurrekontuaren zati bat herritarren esku uzten du, herritarrek beraiek erabaki dezaten diru hori zertan erabili". Guztira 20 milioi euro eta 10 eskualde izanik, "eskualde bakoitzak 2 milioi euro izango ditu datozen lau urteotan inbertitzeko". Tartean, Buruntzaldeak. Prozesu parte hartzaile baten bidez erabakiko dute herritarrek, diru horrekin zer proiektu gauzatu nahi dituzten. Hauxe izango da prozesua:

- Apirilaren 30era arte, herritarren proposamenak jasoko dira.
- Ekaineko bigarren astean, jasotako proposamenen artean herritarrek proiektuen aukeraketa egin beharko dute.
- Jarraian, Aldundiko teknikarien



"Proposamenak eskualdearentzako onuragarria eta Aldundiaren eskumenekoa izan behar du", Foru Aldunditik ohartarazi dutenez.

balorazioa.

- Iraileko bigarren hamabostaldian, herritarrek behin betiko proiektuak aukeratu dituzte.
- Urrian, proposamenak Foru Aldundiaren 2016ko aurrekontuetan txertatuko dira.

### Lehen saioa, apirilaren 23an

Apirilaren 30era arteko epea dago ekarpenak egiteko. Nola? Batetik, diptikoak eta postontziak jarriko dituzte udaletxean, Potxoenean, Oiar-

do Kiroldegian, Sutegin, Aginagako Zaharren Egoitzan eta Zubietako Alamandegian. Web gune honetan sartuta ere egin ditzakezue zuen proposamenak:

[aurrekontuahobetzen.eus](http://aurrekontuahobetzen.eus)

Edo abiatzear den parte hartze prozesuko bileretara joanda. Lehen saioa, apirilaren 23an, 19:00-21:00 artean Potxoenean. "Proposamenak eskualdearentzako onuragarria eta Aldundiaren eskumenekoa izan behar du", ohartarazi dutenez.

### Askatasuna plazako haur parke berria bozkatzeko aukera

Askatasuna plazako haur jolas-tokia berritzera doa Udala. Ipini beharreko jolasak herritarrekin batera aukeratu nahi dituzte ordea. Horregatik, Udalak herritarren iritzia bildu nahi du. Lehiaketa publikora aurkeztu diren enpresen jolastoki proposamenak zeintzuk diren ezagutuko dituzue laster, etxeko postontzian jasoko duzuen eskuorri batean.

Proposamen bakoitza,aldi berean, bozka paper bat izango baita. Bertan zuen izen abizenak idatzi eta gustuko duzuen jolastoki proposamenaren alde bozkatu, apirilaren 24tik maiatzaren 4ra arte, Udalak jarriko dituen hautesontzietan: udal erregistroan, Sutegin, Kiroldegian, edota ikastetxeetan (Haur Eskolan, Udarregi Ikastolako idazkaritzan, Zubieta eta Aginagako Eskola Txikietan) Familia bakoitzeko bozka bakarra onartuko da.

Gipuzkoako  
Partaidetzako  
Aurrekontuak

2 MILIOI euro  
BURUNTZALDEA hobetzeko


Parte hartu zure herriko tailerlean: USURBIL

- Apirilak 23, osteguna, 19:00etan, POTXOENEAN
- Apirilak 29, asteazkena, 19:00etan, POTXOENEAN - gaia "INGURUMENA"

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!

Gipuzkoa  
BERRIA



# Marian Zaldua: “Jende asko dago

DONOSTIAKO CRISTINA ENEAN OSATU DEN HAZIERA TALDEKO KIDE DA

Haziak eta beren inguruko jakinduria zabaltzeko eta partekatzeko lekua da Haziera. “Eskala txikiko nekazaritza mantendu, eta landutako bioaniztasunaz kezkatzen diren pertsona eta erakundeentzako topagunea”, Donostiako Cristina Enearen web orrian irakurri dugunez. 30 bat lagun batzen dira, hilean behin. Haziak partekatu, ikastaroak egin, elkarren berri izan... Askorako ematen du talde honek. Tartean da Marian Zaldua usurbildarra. Ugaldea industriaguneko erriberan du baratzea. Patatak, ilarrak, babak eta tipulina landatu ditu eta egunotan letxuak jartzekoaz.



Marian Zalduak Donostian egin ditu azken urteak baina baratzea Usurbilen mantentzen du.

**NOAUA! Usurbilgo alaba zara, baina urteak egin dituzu Donostian bizitzen. Baratzea hemen duzu, erriberan.**

**Marian Zaldua.** Bost senideen artean ni naiz zaharrena. Betidanik aritu gara baratzean. Lehen kale baserria ere bagenuen, Kontzeju Txikin, frontoiaren ondoan. Gero lanean hasi ginen eta baserria kendu egin genuen. Baina baratzeak beti mantendu ditugu. Duela 10 urte ama hil zen, eta bere anparoa lantzen genuen baratzea.

Usurbilen egiten nuen lan nik, Berriolan. Berregituraketa bat egin zuten eta Oronan eta Fagor-Lasarten aritu nintzen, eta Ordiziara bidali zidaten gero lanera. Nire nerbioek ezin zuten eta lantegi barruan arazo pilo bat izan genituen. Nerbioetatik oso gaizki bukatu nuen. “Nire bizitza edo lana?”, galdetu nion nire buruari. “Senarrak lana badu, jatekoa aterako dut”. Kezka nuen seme-alabei karrera eman nahi nielako,

## MARIAN ZALDUA

**“Nik ez dut onartzen plastikoz estalita dauden gauzak ekologikoak direnik. Ulertzen dut merkatuan eskaera handia dagoela eta erantzun beharra dagoela baina niretzat hori ez da ekologikoa”**

baina aurrera atera gara, eta primeran.

**Baratzean aritzeko joera betidanik izan duzu zuk?**

Oso inkieta naiz. Beti eduki dut baratzea buruan. Beti izan ditugu babarrunak etxe-koak, eta beti izan ditugu barazkiak. Orain denbora libre gehiago daukat, baina lehen ere izan dut ikastaroak egiteko joera. Cristina Eneara joan

izan naiz, Zabalegira, Fraisorora ez zeren oso urruti gertatzen zait... Baina beti izan dut gogo hori.

**Gauzak egiteko, eta ikasteko jakinmin hori.**

Bai, nik baratzean egiten dudana niretzako da. Eta ekologikoa. Nik ez dut onartzen plastikoz estalita dauden gauzak ekologikoak direnik. Ulertzen dut merkatuan eskaera handia dagoela eta erantzun beharra dagoela, baina niretzat hori ez da ekologikoa.

Arrainak merkurioa izango du, haragiak ez dakit zer izango duen... Baina nire barazkiak behintzat, ahalik eta naturalenak izan daitezela. Nik ez diet ezer botatzen, zimaorra bakarrik. Tomateak orain bi urte ez ditut lortu, baina ez diet ezer botatzen. Sulfatorik ez, ezer ere ez. Esan dizut, niretzako egin

du, ez naiz honetaz bizi. Nire baratzean ez daukadanean, plazara joaten naiz eta erosi egiten dut. Eta kitto.

**Ikastaroak egin dituzula esan diguzu. Horrela deskubritu al zenuen Haziera egitasmoa? Zenbat lagun elkartzen zarete Donostiako Cristina Enean?**

30 bat lagun gaude. Jende asko dago kezkatuta jaten ari garenarekin. Gure aintzinako janariak berreskuratzeko gogo bat dago.

Donostian bizi naiz eta askotan joaten naiz paseatzera Cristina Eneara. Toki zoragarria da, askotan ematen dut buelta bat eta liburutegian zerbait kontsultatzen dut. Harremana dut haiek eta pixkanaka ea elkartzen hasiko ginen hasi ziren Marc Badal eta Oier Etxeberria (Cristina Enea ingurukoak biak).



# kezkatuta jaten ari garenarekin”

**NOAUA! Eta horren bueltan batu zarete talde bat.**

**Marian Zaldua.** Bai, orain elkarre bat osatzeko asmoa dago, laguntzak jasotzeko kontuak erraztu daitezten. Txoko bat dugu Cristina Enean, eta han dugu elkartzeko tokia. Hazien muestrak ditugu bertan, “Usurbilgo artoa” adibidez, eta beste hazi gehiago. Barietatearen izena eta guzti. Eta bertan trukatzeko ditugu haziak gure artean. Duela bi urte babarruna eraman nuen nik eta San Martin de Unx (Nafarroa) herrian landatu zituen batek. Behin ere babarrunak landatu gabea zen eta egun batean Bulebarrean nintzela, San Martin de Unx-eko (Nafarroa) lagun honek ezagutu ninduen eta zoriondu egin zidan, txoratzen zegoela nire haziekin lortu zituen babarrunekin. Asko jaso zuela.

**Eta zuk, zein hazi hartu dituzu?**



Cristina Enean badute txoko propioa. Irudian, hazien artxiboa.

## HAZIAK, TRUKEAN

**Garai batean, haziak baserritarren artean trukatzeko ziren.**

**Baserritarren artean bazegoen harremana, eta hala aritzen ziren**

Letxuak, adibidez. Babarrun txuria ere ekarri zidaten baina nik ez dut esperientzia onik izan. Hor ibiltzen gara, oso gustura.

**Topagunea izango da, eta eskola modukoa ere. Haziera-n interesa duenak zer egin beharko luke?**

Donostiako Cristina Enean

deitzeko. Eta elkartzen garen, bileretara joateko. Hilean behin batzen gara. Eta gure artean ere, gure esperientziak partekatzen ditugu.

**Bertako hazien artxibo bat osatzeko ari zarete gainera.**

Garai batean, haziak baserritarren artean aldatzen ziren. Trukean. Etxeko babarruna jartzen zuen gure amak, baina ahal bazuen beste baserri bateko haziak ekartzen zuen. Hemengo baserritarren artean bagenuen hartuemana, eta ama hala aritzen zen, “Ugartetxeberriko Ixabeli esan behar diot babarruna ekartzeko”. Eta babarrunarekin bezala, artoarekin ere, hala ibiltzen ginen.

**Haziak trukatzeko ziren orduan, edo haziak eta barazkiak ere bai?**

Haziak, normalean haziak.

## Haziera kolektiboa: Komunitate bakoitzeko barrietate lokalak mantentzearen alde

**C**ristina Eneako In-gurumen Baliabideen Etxean dago hazien artxibo berria, era honetan landa munduari leiho bat ireki nahi zaio. Honela jasoa dago Hazieraren web orrian.

“Duela 10.000 urtetik gizarte nekazariak landare jangarriak lurralde ezberdinetako egoera klimatikoetara egokitzen aritu dira. Prozesu luze horren ondorio da bioaniztasun landua deritzoguna: lurreko herrialde ezberdinak elikatu dituzten espezie eta nekazal barrietateak. Bertako

barrietateek baloratzea me-rezi duen ondare bat osatzen dute, nekazal-ondarea, baina baita gastronomikoa ere, eta ez bakarrik gure sustrai kulturalen parte direlako, baizik eta nekazaritza ekologikoa bat abiatzeko duten garrantziagatik ere.

Haziak beti izan dira guztien ondare, baina egun enpresa transnasionalek kontrolaturiko ekoizpen-bitarteko bilakatu dira. Horrela nekazariak euren zereginerako baliabide eta oinarrizko eskubide bati uko egin behar izan diote.

Horregatik, bioaniztasun

landua eusteko lanean ari diren erakundeek, behin eta berriro azpimarratzen dute komunitate bakoitzaren eremuan barrietate lokalak mantentzearen garrantzia.

Haziak bizitzaren erreproduktzioa sinbolizatzen badute, bertako barrietateek komunitatea eta kultura herrikoia sinbolizatzen dute”.

### Hazi zaintzaileak

Marian Zaldua da Hazierako hazi zaintzaileetako bat. Bera eta bera bezalako kideak, artxiboko haziak erreproduzitu

eta kontserbatzeaz arduratzen dira. Barietatearen ezaugarrien eta dagoen denboraren arabera, zaintzaile bakoitza konprometitzen da aldaera kopuru jakin bat mantentzeko eta lortzen dituen hazien parte bat artxibora itzultzera.

Zaintzaileek eskura daukate artxiboaren dokumentazio tekniko eta lantegi parte-hartzaileak, zeinetan beren zalantzak gainerako zaintzaileekin partekatu baititzaizkete. Artxiboaren harremanetarako posta ere badaukate edozein zalantza kontsultatzeko:

cristinaenea@donostia.org

## Lankidetzeta hitzarmena, Irisasi kudeatzeko



Jon Peli Uriguen Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo departamentuko diputatua eta Mertxe Aipuria Usurbilgo alkatea, hitzarmena sinatu zuten egunean.

Irisasi mendia kudeatzeko hamar urteetarako lankidetzeta hitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak. Kudeaketa lana, mendiaren herri eginkizuna errespetatuz egingo dela hitzartu dute bi erakundeek. Lehentasunok finkatu dituzte:

-Bertako baso naturalaren aniztasun biologikoa berreskuratzea eta babestea.

-Irisasi mendian dauden ur baliabideak babestea, Erroizpe inguruko bereziki.

-Irisasi mendiaren ondare kulturala babestea eta herritarren aisialdirako erabilera ahalbidetzea.

-Nekazal-baso larretzerako erabilera antolatzeta, beti ere bertako errealitate eta herritarren beharren arabera.

-Basoaren ustiapen iraunkorra bultzatzea, zeregin ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak uztartzuz.

### Mendia ustiatzeko kudeaketa plan bat adostu dute Aldundiak eta Udalak:

-Mendiaren egoeraren analisia eta ondasunen inbentarioa, bere ahalmenak eta ustiaketarako mugak azalduz.

-Hobekuntza plana, bertako baso naturalaren berreskurapena planifikatzen duena.

-Urak babesteko planifikazioa.

-Bide sareraren planifikazioa, beharrezkoak diren bideak soilik eusteko, eta beste guztietan

basoa berreskuratzeke.

-Kulturaguneetarako eta aisialdirako planifikazioa.

-Artzaintzarako planifikazioa.

-Interes bereziko fauna eta flora babesteko planifikazioa.

-Basoaren ustiaketa ekonomikorako planifikazioa, beti ere hitzarmen honen bigarren klausulan azalduz lehentasunak errespetatuz.

Irisasi kudeatzeko planifikazioa Foru Aldundiak onartuko duen arren, Usurbilgo Udalaren iritzia aintzakotzat hartuta landuko da. Onartu aurretik hain zuzen, "eta Usurbilgo Udalaren partaidetza bermatzeko, Udalari eskatuko zaio honi egoki iruditzen zaizkion ekarpenak egiteko. Hauek aztertu eta, egoki ikusiz gero, onartu ondoren, Aldundiak egokitutako planifikazioa igorriko dio Udalari, honek bere iritzia adierazteko. Planifikazioa onartuko duen Foru Aginduan erantzuna emango zaio Usurbilgo Udalari adierazitakoari".

### Jarraipen batzordea

Hitzarmen honen baitan, sei hilabeteko bilduko den jarraipen batzorde bat osatzea adostu dute bi aldeek. Urtean bitan gutxienez egingo diren bilkura hauetan, Foru Aldundiko eta Usurbilgo Udaleko hiruna ordezkari parte hartuko dute. Hitzorduotan, "dagokion urtean eginiko lanen jarraipena egin eta aurreikuspenak zein diren zehaztuko dira".

## Azoka kulturala eta kontzertu gaua, asteburu honetan Gaztetxean

Apirilak 17, ostirala:

Irabazi asmorik gabeko V. Azoka Kulturala

■ 18:00-19:30 Fracking-ari buruzko hitzaldia Potxoenean. Hizlaria: "Fracking ez" taldeko kide bat. "Gure lurra mehatxatzen dituen gaitz honen inguruan hitz egingo digu".

■ 20:00 Irabazi asmorik gabeko banatzaile eta kolektiboen topaketak. Material alternatiboa ikusgai, Sutegi atarian. Eta musika zuzenean: Mor-More talde zarauztarraren lan berria estreinakoz entzuteko aukera.

■ 22:00 Afaria Usurbilgo Gaztetxean, bozondatearen truke.

Apirilak 18, larunbata

■ 23:00 Musika gaua: Las Marines, Dj Elektropeña eta Dj Azkue zarauztarrak.

Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

## Usurbil, dantza zaleen plaza egun batez

Apirilak 25, larunbata

■ 17:30 Dantza estilo ezberdinen erakustaldia. Partehartzaileak:

- Tximeleta soinketa eritmitikoko taldea: Funky eta Hip-Hop.

- Warda Mallalen taldea: Polinesia, Afrikako tribu eta funky fusioa.

- Usurbilgo Zumba Taldea: Zumba.

- Lasarteko Kukuka antzerki eta dantza taldea: dantza garaikidea, euskal dantza sorkuntza.

- Usurbilgo Dantza Taldea: Euskal dantzak.

■ 19:00 Kantu-Dantza Jira, frontoitik abiatuta.

■ 22:00 Dantzaroa Ikuskizuna: "Usurbilgo Dantza Taldeak eta Muxurbil Antzerki taldeak elkarlanean sortutako ikuskizuna. Adin guztietako 60 dantzari baino gehiago taula gainean ikusteko aukera".

Antolatzailea: Usurbilgo Dantza Taldea.

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

urdaintzi@euskainet.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

**GERAR**

BARNEALDEKO PINTURAK  
PAPEREZTATU, LISOAK...

USURBIL 630 70 20 10

**ESKAIOLA eta  
PLADUR**

Joxean Elorza

699426042

USURBIL



# Usurbil KE, igoera faseei begira



Usurbil KE taldeko jokalarik, entrenatzaile, delegatu eta zuzendaritzako kideak, aurreko larunbatean kiroldegian atera zuten talde-argazkian.

**D**enboraldi honetan izan duten maila igotzeko neurketak erabakigarriak jokatu dituzte asteburuan, Usurbil Kirol Elkarteko zenbait taldeek. Apirilaren 17tik 19ra, neska-mutil kadete eta jubenil taldeek Euskal Ligarako igoera sektoreak jokatu dituzte. Mutilen taldeen arteko sektorea, Usurbili egokitu zaio antolatzea. Honenbestez, Oiardo Kiroldegian jokatu dira partidak. Eguneko bi neurketa. Neskenak, Bilbon. Momentuz, zehaztasun hauen berri eman dute:

**Kadete eta jubenil mutilen igoera fasea, Usurbilen**

**Apirilak 17, ostirala**  
Usurbil K.E.-Corazonistas  
18:30 Kadeteak.  
20:15 Jubenilak.

**Apirilak 18, larunbata**  
Basauri-Corazonistas.  
17:45 Kadeteak.  
19:30 Jubenilak.

**Apirilak 19, igandea**  
Usurbil K.E.-Basauri.  
10:00 Kadeteak.  
11:15 Jubenilak.

**Kadete eta jubenil nesken igoera fasea, Bilbon**

**Apirilak 17, ostirala**  
Eharialedea-San Adrian,  
Bilboko De la Peña Kiroldegian.  
18:30 Kadeteak.  
20:30 Jubenilak.

**Apirilak 18, larunbata**  
Usurbil K.E.-Eharialedea,  
Bilboko Rekalde Kiroldegian:  
16:30 Kadeteak.  
18:30 Jubenilak.

**Apirilak 19, igandea**  
San Adrian-Usurbil K.E.,  
Bilboko Rekalde Kiroldegian:  
10:30 Kadeteak.  
12:30 Jubenilak.

## Urkuluko bira "giro zoragarrian"



23 mendizaleek osatu zuten Urkuluko bira. Andatzako ki-deek aditzera eman dutenez, Kurutzeberri, Elorretako haitza, Aranguren eta Andarto gailurrak igo zituzten. "Ibilaldia amaitu ondoren merezitako otordua

egin genuen Urkuluko urtegiari. Mendi gailurretako ikuspegiak, Degurixako lautada, eguraldia eta lagunarteko giroa zoragarriak izan dira".

Taldearen argazkia Elorretako haitzan aterata dago.

## Pilota

### Pilotako egutegiaren zozketa

Pilotako egutegiaren zozketan, zenbaki saritua: 8762  
Saria bi otordu Aginaga Sagardotegian eta beste bi otordu Sagardotegian.

### Udaberri Txapelketa, Infantilak

Apirilak 17 ostirala, 19:00 Usurbilen  
PAGAZPE - GURE TXERU (Getaria)  
Imanol Galarraga-Jon Zumeta

### Paleta Goma Txapelketa

18 urtetik gorakoei zuzendua. Maiatza erdialdean hasi eta Santixabeletan amaitzeko. Izen ematea apirilaren 24an amaituko da. Telefonoz 626 110 923 edo email bitartez: huizip@gmail.com

## Amador Granados, gose greban

Basque Team, Euskadi Kirola Fundazioak hartutako hainbat erabakiren aurka, gose greba abiatu zuen astelehenean Amador Granados herritarrek, Basque Team-ek Faduran, Getxon (Bizkaia) dituen instalakuntzen aurrean. Fundazioak hartu dituen hainbat erabaki bidegabetzat jotzen ditu Granadosek eta gose greba hastea erabaki du. Blog bidez iragarri zuen erabakia: amador-granados-alkorta.webnode.es. Blog horretan aipatzen denez, "oso triste da, Amadorren ibilbidea duen kirolari batek gose greba egiteraino heldu beharra izatea, euskal kirolaz arduratzen direnen eraginkortasun faltagatik eta hartu dituzten erabaki okerrak zuzendu nahi ez izateagatik". Gose greba hasteko arrazoien berri ematen du Granadosek atari berean.

## Mendi bizikletako orientazio proba

Apirilaren 26an igandea, Andatzen. Gipuzkoako Orientazio Taldearen eskutik. "3 ibilbide izango dira. Aldapatsua bezain polita izatea espero dugun proba zuen gustokoa izango delakoan". Informazio gehiago: probak.GOTO-orientazioa.org

## Futbola Haranen

### Apirilak 18, larunbata

10:00 Alebin neskak:  
Udarregi 5A-Urumea A  
10:00 Alebin neskak:  
Udarregi 6B-Udarregi 5B  
11:00 Alebin neskak:  
Udarregi 6A-Elizatxo A  
16:00 Jubenil mutilak:  
Usurbil F.T.-Texas Lasartearra C.F.

### Apirilak 19, igandea

11:00 Futbol Eskola:  
Usurbil F.T.-Internacional C.D.  
17:30 Ohorezko Maila:  
Usurbil F.T.-Tolosa C.F.

## Eskubaloi errifa

4.020 izan da zenbaki saritua. Errifa zenbaki honen jabeak, 2 lagunentzako afaria irabazi du Saizar sagardotegian.

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Neska eta emakume bat bilatzen da pisua konpartitzeko. 250 euro +gastuak. Kale Nagusia. 606642161

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiho nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trasteleku (altzariekin) eta garajea (2 kotxe-erentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trasteleku. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

terrazza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeke 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta eroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, mas-kotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeke pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomiko! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukalde, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

**MOTORRA**

**Salmenta, garajeak**

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17.

615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Erizan laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Neska bat eskaintzen da interna moduan lan egiteko, pertsona helduak zaintzen. Txosten eta agiriekin. Tel. 622 487 879.

Lan bila nabil. Garbiketari, plantatzeke eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest

nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketari egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketari... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketari egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelarekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketari... 604148284.

**Zorionak Enaitz!**  
17an 3 urte.  
Muxu potolo bat Agiñako ikasle-irakasleen partez.

**Zorionak Eneko!**  
Apirilaren 19an hiru urte beteko dituzu. Jarraitu beti bezain alai izaten. Muxu asko familia osoaren partez.

**Zorionak Mare!**  
3 urte beteko dituzu apirilaren 18an. Muxu handi bat, familiaren partetik.

**Zorionak Harriet!**  
Apirilaren 7an 5 urte bete dituzte gure etxeko txikiak. Muxu pila bat etxeko guztien partez!

**Zorionak Irene!**  
Apirilaren 3an, 5 urte bete dituzu. Muxu potolo bat Aginako ikasle eta irakasleen partez.

**Zorionak hirukote!**  
Ze ondo pasa dugun, jarraitu horrela eta muxu asko asko aita eta amaren partez.

**Heriotzak**

**Antonio Jaka Iturain**  
92 urterekin hil zen apirilaren 11n



**Felix Bengoetxea Bereziartua**  
71 urterekin hil zen marxoaren 31n



**Gloria Resano Franco**  
Marxoaren 29an hil zen 78 urterekin





Lan bila nabil, pertsona helduak, umeak, etab... zaintzeko. Esperientzia, tabernan, sukalde laguntzaile, garbiketan... 622 487 879.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papela egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735

354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrik emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrik ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Iزارo)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainetak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrik emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrik ematen ditut

ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta erfortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldan, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

### BESTELAKOAK

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak eta egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aber-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak Apirilak 16-apirilak 26

<b>Osteguna 16</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Ostirala 17</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
<b>Larunbata 18</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Igandea 19</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Astelehena 20</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Asteartea 21</b>	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
<b>Asteazkena 22</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

<b>Osteguna 23</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
<b>Ostirala 24</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Larunbata 25</b>	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
<b>Igandea 26</b>	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekitu egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87  
22:00 - 09:00

# Agenda apirila

## 17 ostirala

■ **Fracking-ari buruzko hitzaldia, azoka kulturala, musika, afaria,** Gaztetxeak antolatuta. Ikus 18. orrialdea.

## 18 larunbata

■ **Ziortzaren 30. urteurrena.** Ekitaldi ugari (ikus 14. orrialdea).  
 ■ **Musika gaua, Usurbilgo Gaztetxean.** Las Marines, Dj Elektropeña eta Dj Azkue, 23:00etatik aurrera.

## 19 igandea

■ **Ziortzaren 30. urteurrena.** 12:00etan meza. 17:00etatik 19:00etara erakusketa.  
 ■ **"Persepolis" filmaren proiektzioa.** 18:00etan Sutegiko auditorioan.

## Zuri beltzean ageri da Iran, Persepolis pelikulan

**B**egirada kritiko eta zorrotz batekin begiratu zion haur, nerabe eta gazte zenean Marjane Satrapik (Teheran, Iran, 1969) bere inguruari. Irani. Aldatzen ari zen herrialdeari. Ikusitakoarekin eta inguruko bizimoduari jarrera kritikoa erakutsiz komiki bilduma bat osatu zuen Satrapik. Persepolis. Bertan, azken 30 urteetan Iranen bizitakoak jaso zituen lau liburutan. Komikiko tirak eszena eta plano bilakatu ziren ondoren. Matrakak taldekoek eskainiko dute igande honetan, 18:00etan Sutegin.



Iranen oinarritzen da Persepolis filmaren trama. Igande honetan, Sutegin ikusgai.

1979an, hamar urte besterik ez zituela, hasi zen Satrapi bere inguruan gertaturiko aldaketek erreparatzen. Urte horietan Iranen gertatu ziren gizarte aldaketa eta politikoen lekuko izan zen. Berak jasandako bazterketa eta errepublika islamiarraren ezarpena izan ziren filmeko lehen zatian jaso zituenak.

Iranen eta Iraken arteko gudak hartzen du

filmaren bigarren zatia. Xahek ezarritako erregimena erori eta islamistek agintea hartzean jarrera errebolataria hartu zuen Satrapik.

Dramatikoak izan ziren garaiak azaltzen ditu Persepolis pelikulan, baina betiere ikuspegi ironiko bat erabiliz. Persepolis filmeko istorioa gogorra bada ere, ikusleari barrea ateratzea lortu zuen Cannesko jaialdian Marjane Satrapik.

### Ostegun honetan, txotxongiloak Sutegin

5-9 urte arteko haurrei zuzendua dago Maria-sun Landaren "Txan fantasma. Neskabila baten eta fantasma txiki baten arteko adiskidetasuna" txotxongilo ikuskizuna. Apirilaren 16an osteguna, 18:00etan Sutegin.

### Fracking-a hizpide Potxoenean

Ostiral honetan, 18:00etan hasita Potxoenean. Fracking-Ez taldeko kide bat ariko da hizlari lanetan. Segidan, afari beganoa eta sorpresa gehiago iragarri dituzte, Gaztetxean.

### Datozenak



### Santixabeletako Jai Batzordearen bilera

Uztailaren 1etik 5era ospatuko diren festak prestatzeko hurrengo bilkura, apirilaren 22an, 18:00etan Potxoenean. Eragile nahiz herritarrei irekia dago bilgunea.

### Jaietako egitaraua diseinatzeko lehia martxan

Iaz Zalao Arnaiz Ibarguren herritarrek irabazi zuen lan koloretsu batekin, Santixabeletako egitarau diseinu lehiaketa. Aurtengo festen berri emango duen gida marraztea ere zuen esku egongo da. Egitarau diseinu txapelketa martxan da eta lanak aurkezteko epea zabalik, maiatzaren 12ra arte.

Lehiaketako txapeldunak 500 euroko saria jasoko du.

Zuen diseinu lana sortzen hasteko lehen pausoa Potxoenean gerturatzea izango da. Egitarauko testua eta oinarriak bertan jaso behar dira. Bestela, eskatu emailaz, [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) helbidera idatzita. Testu horretan oinarritu beharko da diseinu lana.

Argibide gehiagorako: 943 371 999 edo [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus)

**Zuri arrain iturgintza**  
 TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA  
[zuriarrainiturgintza@gmail.com](mailto:zuriarrainiturgintza@gmail.com)

**Pinturas Ion**  
 KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)  
 ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK  
 ☎ 690 99 05 58  
[ionf81@hotmail.com](mailto:ionf81@hotmail.com)

**ELORZA**  
 OBRAK ETA ERREFORMAK S.L.  
 661 804 688  
 San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)



PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA • MAIATZAK 9

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE • MAIATZAK 16

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • MAIATZAK 21

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • MAIATZAK 9

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI • MAIATZAK 16

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • MAIATZAK 23

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

ESKORITZA • APIRILAK 25

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • APIRILAK 25

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia


GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA  
Basque Culinary Center

DONOSTIA • MAIATZAK 23

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

Unibertsitatea,  
inguruko gizartearekin  
inplikatzea ere bada.

erronkarako #prest



Katalin Madariaga,

Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,  
3. maila.

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)





# Edergu zaituz!



**Loli Lizarralde**  
ESTILISTA  
ile-moztea  
KOLOREA  
MAKILAJEA  
aholkularitza  
podologia  
ESTETIKA  
ILE-JASOTZEAK  
IRUDI ALDAKETA  
**L'OREAL**  
PROFESSIONNEL  
ESTETIKAN TARIFA BEREZIAK  
Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971



**Awar** ESTETIKA  
**FOTODEPILAZIOAN  
TARIFA FINKOA  
PREZIOAK ZURE ESKURA!  
KONPROMISORIK GABE  
INFORMA ZAITEZ!**  
munalurra 2, Usurbil 943 571 680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA  
Artzabal  
JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA  
artzabal baserria 626603600



GEL ON-OFF  
ESMALTEZTATU  
IRAUNKORRA  
LEHEN 25€  
ORAIN 18€  
**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA  
KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU  
Egurditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41



**Elexpe**  
ileapaindegia  
Betileen tintaketa  
eta permanentea  
Estetika • Tatuaiak  
Zutikako eta etzandako  
Solariuma  
Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



Berria!  
BIOLOGO BATEK  
MIKROSKOPIOZ  
EGINDAKO BURU-AZAL  
ETA ILEAREN AZTERKETA  
KONTSULTA DOAN!  
9.00etatik 19.00etara zabalik  
Zubiaurrenea 4 • 943 361 951  
GOLDWELL  
**ELUMEN**  
ileapaindegia  
mistoa